

OHIKOA BERRIRAKURRI

«Leer la vida/ Bizitza irakurri» antologia argitaratu berri du Gerardo Markuletak

Sei poema liburu zituen argitaratuta Gerardo Markuleta oñatarrak gasteiztarak oraintsu arte; beraz, ez zuen eskarmenturik falta genero horretako zazpigarrena argitaratzeko. “Leer la vida/ Bizitza irakurri” haren poesiaren antologia da, “Larrosak, noizean behin” (1990) ‘Jon Iriberri’ ezizenez sinatu zuenak zabaldu eta “Denbora bere lekura” (2015) lanak itxi zuen poesialdiko aukeraketa. Jon Iriberri ezezagun haren ezohiko poemak Markuleta- ren poesia heldua bihurtuta. Ezagunak dira haren zenbait poema, halaber, Jabier Mugaruzaren eta Mikel Urdangari- nen ahotsetan.

Pozik ageri da Markuleta Zaragozako Olifante argitale- txeak kaleratu dion lan hone- kin, ez baitzion eragozpenik jarri bere olerkien itzulpenare- kin batera poemak jatorrizko hizkuntzan ere argitaratzeko eta, oro har, argitaletxe horre- tan jasotako tratuagatik.

HURBILEKOAREN BEHAKETA

Egunerokoa, ohiko gatazkak eta egoerak dakartza Markule- tak bere poemen hizpidera, eta hurbilekoaren behaketa horri erreparatu dio Angel Erro idazle eta halaber poetak ere Markuleta- ren antologiari egin dion sarreran. Dioenez, urregilearen irudia gogoratu zitzaion xehetasunik txikienari eskainitako poesia delako, hurbilekoaren behaketa zeha- tzari, ia ezin sumatuzkoa de- nari. «Badira poetak ekaitzari gure orde- z begiratzeko prest daudenak, eta ongi dago hala izatea. Gerardo Markuletak, al- diz, jakina den horretan ezohi- koa aurkitu nahiago du [...] gu- ri errealitatea itzuli «lehen

LITERATURA / Xabier IZAGA GONZALEZ

Bere lan poetikoaren hautaketa bat gaztelaniara itzuli eta argitaratu berri du Gerardo Markuletak : «Leer la vida/ Bizitza irakurri». Haren poesia euskaraz irakurri ezin izan duenak gaztelaniaz irakurtzeko aukera du orain; gainera, euskaraz ere badago irakurgai antologia hori Zaragozako Olifante argitaletxeak plazaratutako edizioan.



Gerardo Markuleta, Jean Echenozen «Isil mandataria», berak itzulitako liburua, eskuan.
Gorka RUBIO | FOKU

aldiz senti dezagun». Literatu- ra esaten zaio horri.

Bere poemak gaztelaniaz emateko ez du konfiantzazko itzultzailerik bilatu behar izan, itzulpengintza baita Markule- taren jardun nagusia, testu poetikoen itzulpenean eta euskarazko testuen gaztela- niarako bertsioetan espeziali- zatutako literatura-itzultzailea denez gero. Julio Cortazarren, Eduardo Gleanoren, Jean Echenozen, Françoise Sagan- nen, Samuel Becketen, Michel Houellebecqen lanak eta zen- bait ipuingile katalanen “Hobe kontatzen ez badidazu” bildu- ma euskaratu ditu. Vicent An- dres Estellesen, Angel Guinda- ren eta Blas de Oteroren poesia eta “Poetas catalanes contemporáneos” antologia euskaratu ditu, baita Angel Gonzalezen poemak ere, Mun- duko Poesia Kaierak bilduma- ra ekarrita. Bestalde, Anjel Ler- txundi, Harkaitz Cano eta Kirmen Uriberen lanak euska- ratik gaztelaniara eraman di- tu, baita Rikardo Arregi Diaz de Herediaren eta Kirmen Uriberen olerkiak ere.

Ibilbide luzeko poeta baten bilakaera eta haren poema- li- buruen hainbat kritikatan hainbeste aipatutako harako «ahots propioa» bilatzeko ahalegina sumatzeko aukera ematen du antologia honek. Ahots gordina umotu arteko bilakaera. «Iriberri vs. Marku- leta balizko bataila literario horretan, bigarrena ateratzen da garaile, nabarmen», idatzi zuen Aritz Galarragak 2019an. “Leer la vida/ Bizitza irakurri” honetan irakurleak aukera du balizko lehia hori liburu be- rean ikusteko. Baita orain ar- tean euskaraz irakurri ezin izan duenak haren poetikaren berri izateko eta, zalantzarik ez, hartaz gozatzeko ere.